

ALKATETZAREN MEMORIA

2017 urterako Ereñotzuko Auzo Udalaren asmoak 2016 urteko ildo beretsua jarraituko du, aldaketa edo berritasun nagusiak honako hauek izango direlarik:

Zerbitzuen atalean:

Taberna

2016garren urte bukaera aldean tabernaren ustiaketa kontratuaren titularra aldatu egin zen, hau da, Iñigo Monrealen ordeztasun Retegi izango da aurrerantzean. Lehen ere bi pertsona hauek ari izan dira lanean eta zerbitzua maila mantentzeko konpromezuarekin onartu da titulartasun aldaketa.

Izaskunek beste langile bat kontratatuko du berarekin batera lan egiteko.

Kontratua 2 (+1+1) urterako egin zen eta lehenbiziko urtea abenduaren 2an beteko da.

Garraio publikoa

GFArekin harremanetan jarraitzen dugu auzotarrei garraio zerbitzu egokiena eskaini ahal izateko.

Arazoetako bat, goizean batxilergoko ikasleak ez dirala garaiz iristen lehenengo klasera. Autobusaren ibilbidea aldatzea proposatu da institutu ingurutik goizago pasa dadin.

Eskolaz kanpoko jardueretako garraioa antolatu eta diruz laguntzeko azterketa ere ari da egiten Auzo Udala, ikasturte honetan gauzatzeko asmoz.

Eraikuntza eta kale garbiketa eta lorezaintza

Eraikuntzen garbiketarako HUK Villarrek zeukan kontratutik atera egin da Auzo Udala eta kontratu bereiztua izango du Auzo Udalak aurrerantzean. Ausolanekin sinatu da urte beteko kontratua eta horrek ahalbidetuko du jasotzen den zerbitzuagatik ordaintzen den kopurua behar bezala egokitzea. 2017ko ekaina arte izango da kontratuaren iraupena.

Kale garbiketako FCCren zerbitzuarekin ere antzeko irtenbideren baten bila ari da Auzo Udala. Nola nahi ere, Hernaniko Udala ere ez dago gustura zerbitzuarekin eta Garbitaniaren aukera aztertzen ari da. Ereñotzuko Auzo Udalarentzat ere irtenbide egokia izan liteke.

Ondare kulturala

Auzo Udalak ondare kulturala berreskuratze alor honetan ahalegina egiten jarraitu nahi du eta diruz laguntzeko asmo garbia du.

Horretarako, 2017an Aranzadi eta Dobera elkarteekin elkarlanean jarraituko du Auzo Udalak, nahiz proiektu berrietan, nahiz aurrekoak osatzeko.

Mantentze lanak

Iazko aurrekontuan sartuta zeuden Bolatokiako konponketa lanak, baina 2017an gauzatuko dira.

- Bolatokia (teilatua, e. a.) txukuntzeko lanak egiteko 20.806 euro daude aurreikusita

Txirrita Eskolan irisgarritasunari dagozkion lanak egin ahal izateko proiektu bat egin behar da. Auzorako plan orokor batean sartuko litzateke eta aurrekontua 8.470 eurokoa da.

Inbertsioetan

2017rako inbertsio aipagarrienak hauek izango lirateke:

- Kale argizatzea auzoko hainbat gunetan 47.500 euro
- Epeleko etxola eta komuna 22.000 euro

Aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren 2017ko aurrekontua

Ereñotzuko Auzo Udalaren sorrerako Foru Dekretuak markatutakoaren arabera, 2016ko aurrekontua 349.944 eurokoa izan da oinarrian, hau da, iazkoa baino ia %3,50 motzagoa:

- Pertsonala, zerbitzuak eta gastu arrunta 280.237,00
- Inbertsioak 69.707,00

Horretaz gain, iazko gerakinak 20.000 euro ingurukoak izatea espero da eta oraindik jaso ez diren diru laguntzak 34.000 (GFAtik) eta 12.000 (EJtik) 2016ko aurrekontuan sartuz geroz 2017rako gerakinari erantsiko litzaioke.

Ereñotzun, 2016eko azaroaren 16an

Imanol Lizeaga Urdanpilleta

Auzo alkatea

